

Transexual, lesbiana, gay, bisexual eta intersexualenganako errespetua aldarrikatuko du Gasteizek, hainbat ekitaldirekin, 17Mren inguruan

Zinema-erakustaldi bat hartuko du Montehermoso kulturuneak, eta transgeneroei buruzko hitzaldi bat

1990eko maiatzaren 17an, gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea Osasunaren Mundu Erakundeak. Hori izan zen lehen urratsa, sexu-joera eta -identitatea onartuak izaten has zitezten, gizarteen berezko aniztasunaren baitako gisa. Ildo horretatik aldaketa eta aurrerapen ugari gertatu badira ere, transexual, lesbiana, gay, bisexual eta intersexualek —LGTBI ere deitu ohi zaien horiek— diskriminazioa, estigmatizatzea eta bortizkeria jasaten jarraitzen dute.

Hainbat ekitaldirekin ospatuko du Udaleko Berdintasun Zerbitzuak data hori, LGTBfobiaren kontrako borrokan ahaleginak egiteko asmoz, kultura, hezkuntza, entretenimendua eta ezagutza baliatuz aniztasunarekiko errespetua galdatzeko.

Bestalde, [“Transgeneroak: teoria feministenzako erronkak”](#) hitzaldia izango da Montehermoso kulturunean maiatzaren 11n, 19:00etan, Cristina Garaizabal Elizalderen eskutik —aktibista feminista eta prestakuntza psikoanalitikoko psikologo klinikoa, eta sexu-aniztasunarekin eta generoarekin zerikusia duten arazoetan aditua—. Inmaculada Mujika Flores izango da moderatzailea —ALDARTE / Lesbianei, gayei eta transexualei arreta eskaintzeko zentroaren sortzaile-kidea eta zuzendaria—. Sarrera doan izango da, lekuak bete arte, eta **zeinu-hizkuntzako interpretea nahiz haurtzaindegi-zerbitzua** eskainiko da, eskatuz gero.

Maiatzaren 16an, 18an eta 20an, zinema-erakustaldiaren egoitza izango da Montehermoso. 18:30etatik aurrera izango dira emanaldiak, eta film hauek eskainiko dira: “Closet monster”, ingelesez, gaztelaniazko azpтитuluekin; “Pojkarna” (“Neska Galduak”), suedieraz, gaztelaniazko azpтитuluekin, eta “Sangailés Vasara”, lituanieraz, gaztelaniazko azpтитuluekin.

Vitoria-Gasteiz reivindicará el respeto a trans, lesbianas, gays, bisexuales e intersexuales con diferentes actos en torno al 17M

El centro cultural Montehermoso acogerá una muestra de cine y una conferencia sobre transgéneros

El 17 de Mayo de 1990, la Organización Mundial de la Salud (OMS) eliminó la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales. Ese fue el primer paso para que la orientación y la identidad sexual empezaran a ser aceptadas como parte intrínseca de la diversidad de nuestras sociedades. A pesar de los muchos cambios y avances en ese sentido, las personas trans, lesbianas, gays, bisexuales e intersexuales (también conocidas como colectivo LGTBI) continúan sufriendo discriminación, estigmatización y violencia.

Con el objeto de “aportar nuestro esfuerzo en la lucha contra la LGTBfobia, recurriendo a la cultura, la educación, el entretenimiento y el conocimiento para reivindicar el respeto a la diversidad”, el servicio de Igualdad del Ayuntamiento conmemorará esta fecha con distintos actos.

Por una parte, el centro cultural Montehermoso acogerá el 11 de mayo, a las 19:00 horas, la conferencia [“Transgéneros: retos para las teorías feministas”](#) de la mano de Cristina Garaizabal Elizalde, activista feminista y psicóloga clínica de formación psicoanalítica y experta en problemáticas relacionadas con la diversidad sexual y el género. Inmaculada Mujika Flores, cofundadora y directora de ALDARTE, Centro de atención a lesbianas, gays y transexuales, será la moderadora del encuentro. La entrada será libre hasta completar aforo y se ofrece servicio de **intérprete de Lengua de Signos y/o de Guardería**, previa demanda.

El 16, 18 y 20 de mayo Montehermoso será sede de la muestra de cine, que proyectará, en sesiones a partir de las 18:30 horas, las películas “Closet monster” en V.O. inglés con subtítulos en castellano, “Pojkarna” (“Neska Galduak”) V.O. sueco con subtítulos en castellano y “Sangailés Vasara” V.O. lituano con subtítulos en castellano.